

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2023)**  
**IV MODALITATEA**

**Onartu eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena**

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

**UPV/EHU<sub>n</sub> IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2023.**

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda eta lehen fasearen emaitzak IAEaren webgunean argitaratu ondoren, eta deialdiaren 7.5 oinarriarekin bat:

Bigarren fasean, 7.4 oinarrian aurkezten den taulan ezarritako 7. eta 8. irizpideak ebaluatuko dira, guztira 35 puntu direla. Irizpide horiek kanpoko prozesu baten bidez ebaluatuko dira, Estatuko Ikerketa Agentziaren, Ebaluazio eta Koordinazio Azpiatalaren (lehengo ANEP) edo Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren edo antzeko ezaugarriak dituen beste kanpo-agentzia baten bidez.

Bigarren fasera igaro diren eskabideen puntuazio osoa lortzeko, eskatzaile bakoitzari lehenengo fasean egindako ebaluazioaren guztizkoa eta bigarren fasean lortutako ebaluazioaren guztizkoa batuko zaizkio. Ebaluazioaren emaitzak Ikerkuntza, Garapen eta Berrikuntzarako batzordeari (IGBB) bidaliko zaizkio; horrek dagokion esleipen proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, behin-behineko ebazpena eman eta argitara dezan.

Eskabideak ebaluatzeko tramitea bukatu ondoren, IGBBk, 2024ko martxoaren 13an egindako bileran, esleipenaren proposamena egin zuen, behin-behineko ebazpena eman eta argitaratzeko. Horrenbestez, IAEk ERABAKI DU bere webgunean argitaratzea **emandako eta ukatutako eskaeren behin-behineko ebazpena; II. Fasea – IV Modalitatea** eranskinean jasota dagoena.

**Behin-behinean EMANDAKO** eskaerak jaso dituzten pertsonak **2024ko martxoaren 14tik 27ra (biak barne)** izango dute kontratua onartzeko edo uko egiteko. Horri adierazteko, mezu elektronikoa idatzi beharko dute helbide honetara [solicitudes-pif.dgi@ehu.eus](mailto:solicitudes-pif.dgi@ehu.eus).

Epe hori iraganik, espresuki onartu edo uko egiten ez bada, eskabideak atzera egin direla ulertuko da.

**Behin-behinean eskaera UKATUA** izan dutenei dagokienez, alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte lehenago aipatutako epe berean: **2024ko martxoaren 14tik 27ra (biak barne)**.

Epe horretan bertan, eskatzaileek euren eskabideari dagokion ebaluazio txosten osoa eskatu ahalko dute [solicitudes-pif.dgi@ehu.eus](mailto:solicitudes-pif.dgi@ehu.eus) helbidera idatzita.

**Alegazioak deialdiaren 6. oinarrian azaldutako bide berberetan aurkeztu beharko dira.**

**OHAR GARRANTZITSUA:**

Eskaera kopurua dela eta, ez da telefono deirik hartuko. Kontsulta guztiak helbide honetara bidali behar dira: [solicitudes-pif.dgi@ehu.eus](mailto:solicitudes-pif.dgi@ehu.eus)

Leioan, 2024.eko martxoaren 13an.